

EKIALDE HURBILA. Gaza eta Zisjordaniako PANen posizioak bonbardatu ditu Israelgo Armadak gerra airekoekin

Agentziak | **JERUSALEM**

Orient House okupatu zuen atzo Israelgo Poliziak, PAE Palestinaren Askapenerako Erakundeak Jerusalem Ekialdean duen egoitza nagusia. Eraikinean sartu, bertan zeuden zazpi guardia atxilotu, eta agiriak konfiskatu zituzten segurtasun indarrek. Neurri hori herenegun Jerusalemen 16 pertsona hil zituen atentatu suizidaren ostean Israelgo segurtasun kabineteak egindako bilkuran adostutakoari jarraituz hartu da.

Orient Housetik erretiratzeko asmorik ez zutela jakinarazi zuen Israelgo Segurtasun Publikorako ministro Uzi Landauk atzo. «Ordena ezarri dugu berri-

Jerusalem Ekialdeko PAEren egoitza okupatu du Israelek

Eraikina uzteko asmorik ez duela adierazi du Tel Aviveko gobernuak

ro Ekialdeko Jerusalemen, PAEk bertan egoitza izatea Israelgo legeriaren aurkakoa baitzen», adierazi zuen Uzi Landauk.

Ahmed Abdel Rahman PAN Palestinako Aginte Nazionalen presidente Jasser Arafaten aholkulariak aditzera eman zuenez, «Orient Housen oku-

pazioak 1993ko Osloko bake akordioetatik Israelek eta Palestinak hitzartutako guztia urratzen du». Bake akordioetan adostutakoa babesteko dei egin zion nazioarteko komunitateari PAEren Jerusalem Ekialdeko egoitzak, atzo kaleratutako agiri ofizial batean.

Orient House okupatzeaz


gain, Jerusalem Ekialdean kuartel berriak ireki, eta bertan dauden Palestinako segurtasun indarrak handik bidaltzea adostu zuen Israelgo Gobernuak, Ariel Sharon lehen ministroak herenegun gauean segurtasun kabinetearekin egindako bilkuran. Hala, Jerusalem Ekialdeko zazpi bulego palesti-

nar itxi zituen Poliziak, eta hiri horretatik gertu dagoen Abu Dis herriko gobernadorearen egoitza nagusia eta Eizarye herriko PANen inteligentzia bulegoak suntsitu zituzten Israelgo tankeek.

Gerra hegazkinak Gaza eta Zisjordanian

Israelgo Gobernuak PANen aurkako beste hainbat eraso ere egin zituen Gaza eta Zisjordanian. F-16 gerra hegazkinak Palestinako Poliziaren eta PANEko presidente Jasser Arafaten Guardia Presidentzialaren egoitzak bonbardatu zituzten, Zisjordaniako Ramala hirian eta Gaza hirian. Ez zen biktima-rik izan, PANek lehenago erai-kin ofizial guztiak hustu baitzitu-ten, Israelen erasoaren bel-
dur.

Jasser Arafatek gogor kritika-
tu zituen Israelgo Gobernuaren erasoak, eta horrek indarkeria areagotuko zuela ohartarazi zuen.



JACQUELINE LARMA / AP
Orient House Israelgo banderarekin, Poliziak okupatu ostean.



LEFTERIS PITRAKIS / AP
Ramalako PANen Poliziaren egoitza, Israelek bonbardatu ondoren.

ORIENT HOUSE

Palestinarren sinboloa Jerusalem

Jerusalem beren herriaren hiriburua da palestinarentzat. Aldarrikapen horren sinbolo bihurtu da Israelek 1967an okupatu zuen Jerusalem Ekialdean kokatutako Orient House, 1991n horren jabe Faisal Hussein politikari palestinarra eraikina bulego ez ofizial gisa erabiltzen hasi zenetik. 1993ko Osloko bake akordioak sinatu ostean, Orient House Jerusalemgo Auzietarako Palestinako Ministerioaren egoitza nagusi bihurtu zen, eta Hussein, ministro. Israelgo Gobernuak maiz saiatu da Orient House ixten, eta haserre hartu izan du Europako agintariak palestinarrekin bertan biltzea.

IRAK. Pertsona bat hil eta hamaika zauritu dira, Gobernuaren arabera

Aire defentsarako sistemak bonbardatu dituzte EEBBetako eta Erresuma Batuko airekoek

Agentziak | **BAGDAD**

Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako 50 gerra hegazkinak Iraken aire defentsarako hiru posizio bonbardatu zituzten atzo, herrialde horren hegoad-

deko eremu debekatuan. Aste honetan Iraken izandako bigarren bonbardaketa izan zen atzokoa, eta otsailetik handiena.

Bagdadeko Aire Armadak atzo aditzera eman zuenez,

pertsona bat hil eta beste hamaika zauritu ziren erasoaren ondorioz.

Bonbardatutaren jomugek EEBBetako eta Erresuma Batuko hegazkinen segurtasuna arriskuan jartzen zutela adierazi zuen Pentagonoak atzo. «Azken hilabeteetan Bagdadek ugaritu egin ditu gure airekoen aurkako erasoak, eta horregatik erabaki dugu bonbardaketa egitea», jakinarazi zuten Washingtongo iturri militarrek.



Eros ezazu urtebetean interesik gabe J. Bengoa

Bulebarreko arkupeak, 20